

GIL 80 Guardiako aintzirak



Prado de la Paúl aintzira.

Kokapena

- **Koordenatu geografikoak:**

Lat.: 42° 33' 14,47" N
Long.: 2° 34' 22,05" W

- **UTM koordenatuak:**

X: 535.115,91 m
Y: 4.711.386,99 m



Nola iritsi

Guardia herritik, A-124 errepidea hartuta. Errepideari Logroño alderantz jarraituz, 2 km-ra, 66 km-an, bide bat ateratzen da hegoalderantz, eta aukera ematen du urmael nagusien ertzetik ibiltzeko.



Guardiako aintziretako biotopoaren panela.

GILaren deskribapen laburra

Guardiatik hurbil dagoen hezegune-multzo txiki bat da. Hezeguneak txikiak dira, eta, guztira, 40 hektarea baino gutxiagoko azalera dute. Bi hezegune —Carralagroño eta Carravalseca— Europako gatzaga endorreiko mesogazikara iparraldekoenak dira. Hirugarren hezegunea, Prado de la Paúl, aurreko bi horien ezaugarri natural berak zituen kubeta zahar baten gainean egindako urtegi artifical bat da.

Ibaiak eta haizeak hareazko eta lohizko sekuentzia txandakatu oso horizontalen gainean eragindako higaduraren erakusgarri ona dira Guardiako aintzirak. Eredu lau ugari dauka, materialak gogortasun desberdinekoak dira eta norabide finkoko haizeak izaten dira maiz. Ezaugarri horien guztien ondorioz, higadura-forma zirkularrak edo luzanga itxiak sortu dira, eta, haietan, jariatze-urak aintzira natural txikiak eratu dira. Aldi bateko aintzirak dira: hegazti askorentzako babesleku dira, baina, udaldian, lehortu egiten dira, eta gatz disolbatuak prezipitatu dira. Horren ondorioz, kolore zuria izaten dute udan.

Lau aintzira dauka Guardia inguruan: Prado (handiena), Carralagroño, Carravalseca eta Palomedo (txikiena). Ikuspuntu geologikotik, beharbada 50 aintzira baino gehiago izango ziren, baina aipatutako horiek baino ez dira kontserbatzen. Interes geologiko eta geomorfologikoaz gain, ekosistema oso garrantzitsuak dituzte; bereziki, hezegune gisa. Eredu endorreikoak dira denak, eta zati lohitsu batzuk dituzte, geruza hareatsu sendoagoek babestuak. Geruza horiek definitzen dute eremuaren inguru-lerro itxia. Carravalseca eta Palomedo luzeak dira; Carralagroño, berriz, subzirkularra da. Errepidetik iparraldera, ga-



Carralogoño aintzira, agorraldian izan ohi duen duen gatz-zarakarra duela.

rai bateko eremu endorreiko bat aprobeixatu da Prado de la Paúl baltsa eraikitzeke. Baltsaren ertzetan ibiltzen bagara, aukera izango dugu askotariko egitura sedimentarioak behatzeko hareharrietan; gehienak, eremu kanalizatuetan.

Behatzeko punturik onena

Aintzirarik iparraldekoenean faunari behatzeko egokitutako behatokietatik eta Guardia herritik bertatik.

Erlazionatutako GILak

- **Geografikoki:** GIL 55.
- **Gaiari dagokionez:** GIL 30, GIL 53, GIL 80.

GIL-aren balorazioa

Balorazioa		Baxua	Ertaina	Altua	Oso altua
Interes zientifikoa	Geomorfologikoa			●	
	Hidrogeologikoa			●	
	Tektoniko/Estrukturala				
	Estratigrafikoa				
	Paleontologikoa				
	Petrologikoa				
	Mineral-hobiak				
	Beste batzuk				
Interes ekonomikoa (erauzketa)			Iraganean	Potentziala	Martxan
Interes kulturala:					
Oharrak:	Geodibertsitateak biodibertsitatean duen garrantziaren adibide bikaina.				

Bibliografia espezifikoa

- Martínez-Torres, L. M. (1997). *Transversal a la Cuenca Vasco-Cantábrica. Introducción a la estructura y evolución geodinámica*. Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua. 121. or. ISBN: 84-7585-927-5.
- Martínez-Torres, L. M. (2005). *La Tierra de los pilares. Sustrato y rocas de construcción monumental en Álava*. Mapas litológicos de las iglesias de la Diócesis de Vitoria. Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua. 147 or. eta CD bat. ISBN: 84-8373-655-1.
- Martínez-Torres, L. M. (2000). "Sobre la existencia de dos superficies de erosión con lagunas en Laguardía (Alava): implicaciones neotectónicas". *Estudios del Museo de Ciencias Naturales de Alava*, 15, 41-46.
- Vegas, J. I.; Ajamil, J.; Elorza, M.; Etxebarria, F.; Fernández, M. S.; Herrasti, L.; Iriarte, M. J.; Martínez-Torres, L. M.; Quintas F., De la Rúa, C. eta Uriz, A. (1999). *El enterramiento neolítico de San Juan Ante Portam Latinam*. Arabako Foru Aldundia. 129. or. ISBN: 84-7821-392-9.